

«Euskarak proiektzio kulturala izateko, dialektoa laburregia da»



KEPA
ALTONAGA
Biologoa eta idazlea

hirulka

139. zenbakia

2018ko urriaren 25etik azaroaren 7ra arte



Zientziari emandako gorpuen azken habia

Hamabost urte igaro dira EHUK Bizitzaren Basoa sortu zuenetik. Han daude gordeta euren gorpua medikuntza-ikasketetarako dohaintzan ematea erabaki zuten ehunka pertsonaren errautsak. Bisita egin diegu monumentuari eta beraren historiari.

ASTRABUDUKO HEZEGUNEA | 4

HIRU PAUSO GUNEA BERRESKURATZEKO

Erandioko PSE-EEK Astrabuduko hezegunea berreskuratzeko eman gura dituen urratsak azaldu ditu. Gakoa Bilboko Udala izango da.

HIRUKIRA OLGETAN | 8-9

UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hilabeteroko azken zenbakian ohi den legez, umeentzako jolasen atala topatuko duzue aldizkariaren erdiko orrialdeetan.

ZAINKETA ARINGARRIA ETA DOLUA | 6

HERIOTZARAKO BIDEAN ERE LAGUNDU BEHARRA

Hilzorian dagoen gaixoaren mina tratatzeaz gainera, horren arazo fisiko, psikosozial eta espiritualak ere landu behar dira.

GALEAKO OLATU HANDIA | 12-13

BERTOKO LAGUNARTETIK MUNDUKO PROBARA

Eneko Acero, David Bustamante eta Aritza Saratxaga surflariak Galeako Olatu Handiko Txapelketa zelan sortu zen gogoratu dute.

Etorri
OUTLET HANDIENERA
• Iparraldean •

XV. EDIZIOA

**Azaroak
9, 10 eta 11**
11:00etatik 21:00ak arte

**STOCK
EUSKADI**

B! E! C!
**BILBAO
EXHIBITION
CENTRE**

ESKAINTZARIK ONENAK
LEHEN MAILAKO MARKAK
ZOKKETAK: 3000€-TIK GORA



Medikuntzaren izenean, esk

Leioa eta Erandioko campusaren atzeko aldean dago Bizitzaren Basoa, gaur egun Arboretuma dagoen eremuan, Lertutxe aintziraren ondoan. Corten altzairuz egindako hoge

«Hemen hilak birsortzen dira/biziei laguntzeko ametsaz», azaltzen dio plaka batek Bizitzaren Basoan sartzear dagoenari. Hamabost urte bete dituen monumentu hau da azken geltokia euren gorpua ikerkuntzarako eman zuten askorentzat.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **OSKAR GUTIERREZ** ►

Leioa eta Erandiok partekatzen duten EHuko campusaren atzeko aldean, ezin segurtasun osoz esan udalerrietako zeinetan, altzairuzko hogei zeharkatutako baso berezia dago, hildakoen gordeleku izan arren biziari eskainitakoa. Zuhaitz horien barruan daude gordeta azken lau hamarkadetan euren hilotzak EHuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateari utzi dizkieten ehunka pertsonaren errautsak. «Pertsona eskuzabalak, gorpua zientziari utzi nahi izanak», aldarrikatzen du unibertsitateak Basoaren ertzean ipinitako aurkezpen-plakak.

Hain zuzen, Medikuntza Fakultateko atetik abiatuta heldu gara honaino, hamar bat minutuko paseoan, EHuren Arboretuma zeharkatuz ondo asfaltatutako bideetik. Gaur egun parke horrek inguratzen du Bizitzaren Basoa alde gehienetatik, baina hori geroago etorri zen. Basoa sortu zenean, egun euritsuetan basaz betetako zidor bat zen bertora ailegatzeko bide bakarra.

GORPU BARIK, IRAKASTERIK EZ. Bizitzaren Basoa 2003ko irailean inauguratu zuten, baina haren sorrera behar bezala ulertzeko askoz salto handiagoa egin behar dugu denboran. 1970eko hamarkadaren amaierara, hain justu. Garai hartan heldu zen, handik laburrera EHU/UPV izena hartuko zuen Bilboko Unibertsitatera, Basoaren sustatzaile nagusia: Paco Doña-

1980tik 2003ra, Bizitzaren Basoa inauguratu arte, Paco Doñate irakasleak bere bulegoan bildu zituen medikuntza-praktiketan erabilitako gorpuen errautsak. Ia 300 ontzi pilatu zitzaizkion.

te medikuntza-katedraduna. Doñatek oraindik orain hartu du erretiroa, baina ez du guztiz eten unibertsitateagaz lotura, are gutxiago bere ume kutunagaz. Hark lagundu digu txango bikoitzean: bai honaino ekarri gaituen paseo laburrean, bai ia lau hamarkadako historian zehar egindakoan.

«Unibertsitatera ailegatutakoan ezustekoa izan nuen: ez zegoen hilotzik», gogoratu du irakasleak, «eta hilotzak oinarritzkoak dira medikuntza irakasteko». Praktika gehienak maketak eta halakoak erabiliz egiten ziren garai hartan, eta ba-zeuden «hiruzpalau hildakori zegozkien zenbait gorputz-atal, ebakuntza-mahai guztietan zer edo zer egon ahal izateko zatitutakoak, eta ordurako erabilezinak».

Doñatek hainbat neurri hartu zuen berehala. Batetik, gorputz-zati haiek errausteko agindu zuen, eta errautsak bere bulegoan gorde zituen. Bestetik, bere aurreko fakultatera deitu zuen, Zaragozara, laguntza eske. «Pare bat gorpu eman ziguten, eta ekarri egin genituen. Material horregaz praktikak egiten hasi ahal izan genuen egunero».

GORPU-EMAILE ESKE. Adabaki hura ez zen nahikoa, baina. «Gorpu-emaile elkarte bat sortzeko eskatzen hasi nintzen, hedabidetan artikulatuak argitaratuz, eta erantzun ona jaso genuen», dio irakasle erretiratuak. Adierazi digunez, ekimen horren aurretik unibertsitatera ailegaten ziren gorpu bakarrak (eta bakanak) hil ostean inork erreklamatzeko ez zituenenak ziren. Baina bide hartatik jasotzen zenak ez zituen ikastegiaren beharrak asetzen. Gainera, sasoi hartan gaur egun baino askoz ikasle gehiago zebilen Medikuntza Fakultatean.

Ordutik aurrera, gorpua ematen zutenek modu boluntarioan eman zuten, fakultatera joanda eta hainbat agiri izenpetuta. Oraindino ere, Interneten garaiotan, derrigorrezko baldintza da bertara joatea gorpua zientziari emateko. Dena dela, izan-



er onez

zuhaitzek osatzen dute, eta 2.000 urte baino gehiagoko olibondoa dago erdi-erdian.

dako arrakastari esker behar baino emaille gehiago dago; horregatik, fakultateak ez du dohaintzarik onartzen momentu honetan. «Hasierako emaille haiek zahartu egin dira, eta asko hil ere bai. Joan den hilean, esaterako, bederatzi gorpu heldu zitzaizkigun, batez bestekoa baino gehitxoago. Gure beharriaz natarako lar dira, eta kontuan eduki beharra dago, gainera, gu arduratzen garela gorpua jaso eta ekartzeko ehorztetxeari deitzeaz, kontserbatzeaz...». Doñatek azaldu duenez, azken bost urteotan, gutxi gorabehera, dohaintza egin guran joan zaizkinei organo-emaille bihurtzeko gomendatu diete.

Gorpuak ez dira betiko. Alboko elkarrizketatxoan azaltzen denez, ikasturte bi edo hiru igarota ez dago gehiago haiek erabiltzerik. Aspaldiko garaietan, hilobi komunetan eta identifikatu barik uzten zituzten inork erreklamatu ez eta unibertsitateara ailegatzaren ziren hilotz haiek. Baina Doñate ez zegoen inola ere hori onartzeko prest: «Honek denak medikuntzaren alde humanoagaz dauka lotura. Ez unibertsitateak, ez sentiberatasun apurra daukan inork ezin du ontzat eman bere gorpua eskuza-baltasun osoz zientziari eman dionaren azken arrastoak modu horretan tratatzea». Hala, urte askoan, ikasleen praktiketarako daborduko erabil ezin zitezkeen hilotzak errausteko agindu zuen Doñatek, eta errautsak, leku hoberik ezean, bere bulegoan bildu. Urteak joan, urteak etorri, ia 300 pilatu zituen.

BIZITZAREN BASOA. Errauts-ontziek bulegoko espazioa betetzen zioten bitartean, katedralunak aldiro eskatzen zion EHUri haien zatitza leku duin bat atondu zezan. Erantzuna, sarri, dirurik ez zegoela izaten zen. Apurka-apurka, ordea, Doñatek berak karguak lortu zituen unibertsitateko zenbait zuzendari-tza-organotan, eta, bere berbetan, «erabakitzeke ahalmena zuten pertsonengan eragiteko aukera gehiago» eduki zuen. Horri batuta, gauza bi jazo ziren 1990eko hamarkadaren amaieran:

«Ikasleek gorpu beragaz egin ohi dituzte lehen urte bietako praktikak»



Paco Doñate katedralunak azaldu digu, xehetasunik eman barik (guk ere ez diogu eskatu), Medikuntza Fakultatera ailegatzaren diren gorpuei zer-zelako erabilera ematen zaien. Lehen ikasturte bietako praktiketan baliatzen dituzte, argitu duenez.

Luzaroan erabiltzen da gorpu bat erraustu aurretik? Bizpahiru urtez, lau ere izan litezke. Giza Anatomia ikasgaiaren lau ataletan erabiltzen dira, lehenengo eta bigarren mailan. Bigarren ikasketa-urtea amaitu orduko, ikasle batek gorpu beragaz egin izan ditu praktika denak, normalean. Hilotzak ondo kontserbatuta daude (zainetan hainbat substantzia injektatzen zaie horretarako, eta hozkailuetan gordetzen dira), baina behin horra ailegatuta ezin izaten dira gehiago erabili, eta erraustu egiten dira.

Zilegi bada hala esatea... gorpu osasuntsuak dira, ezta? Bai, hala da. Giza gorputza barrutik zelakoa den ikusteko erabiltzen dira. Anatomia patologikoa, hau da, gaitz konkreturen batengatik hil direnen azterketa, ospitaleetako praktiketan jorratzen da, autopsien bitartez.

Zuhaitz gehienak, betetzeke oraindino



PACO DOÑATE

Errautsak dituzten ontziak altzairuzko zuhaitzen barruko apaletan uzten dituzte. Bizitzaren Basoak dituen hamabost urteetan, apalen % 10 inguru baino bete ez dela kalkulatu du Paco Doñatek. 1980tik honako gorpu-emailleen kopurua 600dik gorakoa da, baina Basoan horien erdia ere ez dago. Gaur egun beste 60 errauts-ontzi inguru daude bertan uzteko zain, Medikuntza Fakultateko biltegi batean.

alde batetik, EHUri diru-dohaintza handia ailegatu zitzaion ezustean; bestetik, unibertsitateko agintarien sentiberatasuna handitu zen. «Zehazki, Pello Salaburu orduko errektorea aipatu beharra dut», dio Doñatek, «askotan jo nuen harengana zer edo zer egiteko eskatuz, eta azkenik fruitua eman zuen tematze horrek». XX. mendearen hondarra zen, eta Doñatek hogeitau inguru zeroatzen errautsak bere bulegoan gordetzen.

Katedralunaren eskariari men eginez, azkenik, EHUK ideia-lehiaketa publikora deitu zuen 2000. urtean, errauts haien behin betiko gordelekua aukeratzeko. Erabakia hartu behar zuen batzordean unibertsitateko jendea zegoen, baita intelektualak eta artistak ere, Nestor Basterretxea eskultore ospetsua barne. 50 proiektu aurkeztu ziren, eta batzordekide denek, batek izan ezik, gaur egun Bizitzaren Basoaz izenez ezagutzen denaren alde bozkatu zuten. Kataluniako arkitekto birena zen proiektua, «baina aukeraketa egin genuenean guk ez genekien hori», azpimarratu du Doñatek, «bozketa itsua izan zen».

«BIZIAREN GERRILLARIAK». 2003an gauzatu zen Paco Doñatek hain luzaroan izandako helburua. Hasiera batean Elkartasunaren Basoa izendatzeko asmoa eduki zuten, baina laster iritzi aldatu eta gaur egun duen izena ipini zioten guneari. «Azken batean, hemen dauden gorpuek medikuak hezi dira», diosku Doñatek, «eta medikuek euren bizitzaren zati handia eskainiko diote gaixotasunen eta heriotzaren aurka borrokatzeari; labur esateko, biziaren gerrillari bihurtzen dira».

Corten motako altzairuz egindako hogeitau zuhaitz ditu Basoak, hartxintzarrez estalitako zirkulu handi batean. Euren alboan, egurrezko jesarleku handi batek Karonen txalupa irudikatzen du, hau da, antzinako Greziako mitologian hildakoak Hadesen erresumaraino eroaten zituen ontzia. Eta jesarleku horretan, aldiro berritzen den paper-zati batean idatzita, 1980ko hamarkadaren hasieratik euren gorpua EHUKo Medikuntza Fakultateari eman dioten izenak daude idatzita, hainbat arrazoiengatik zerrendan agertu gura izan ez duten gutxi batzuen izenak.

Zerrenda horretan adierazita dago emaille bakoitzaren errautsak zein zuhaitzetan gordeta dauden. Baina erdia baino gehiagotan falta da ohar hori. «Hasierako urteetan [Basoa inauguratu arte] familia askok errautsak eroan zituzten, bestela askoz gehiago pilatuko nituzkeen», argitu du Paco Doñatek. Hala ere, Bizitzaren Basoa existitzen denetik emaille gehienek senideek errautsak bertan gordetzea gura izaten dute. Bizpahiru urtean behin egiten da errauts-ontziak Medikuntza Fakultatean (aspalditik beren-beregi horretarako sortutako biltegi batean gordeta daude) Basora eroan eta han uzteko zeremonia. «Lehen ekitaldi publikoa izaten zen, baina behin senide batek esan zuen bere ustez zeremoniak intimoa izan behar lukeela, eta ordutik hona ez dugu berritatu publikoki egin». Errautsak sartzeaz batera, berritu egiten da «Karonen txalupan» ipinitako zerrenda, daborduko 650 izen inguru daukana.

OLIBONDOA HARITZEN ERRESUMAN. Gunearien erdian, altzairuzkoek inguratuta, Bizitzaren Basoko benetako zuhaitz bakarra dago: olibondo bat. Monumentua eraiki eta gutxira ipini zuten, eta Paco Doñateren esanetan oso litekeena da Bizkaiko zuhaitzik zaharrena izatea: «2003an, hona ekarri genuenean, 1998 eta 2007 bitarte eraztun zeukan, hau da, gutxi gorabehera kristau aroaren adin bera du». Katedralunak gogoan du Bizitzaren Basoaren erdian zuhaitz bat ipintzeko erabakia hartu zenean, monumentuaren sorreran parte hartu zuten gehienek haritzaren alde egin zutelako, Bizkaiko espezierik esanguratsuenak. «Baina begiratu inguruari; haritzak daude nongura!». Azkenean, gizateriaren historian eraginik handiena izandako zuhaitza aukeratzeko proposatu zuen nork edo nork. Olibondoa gailendu zen. «Ohartu zaitez esanguraz betetakoa dela: dieta mediterraneoaren oinarria da, eta sendagai askorena; zura ezin nobleagoa du; hiru erlijio monoteista handiek erabiltzen dute azken igurtziak egiteko; eta gainera, bakearen ikurretako bat da». Bada, sinistu egiguzue: Bizitzaren Basoaren inguruan bakea ia-ia arnastu ere egin daiteke. ◀

ASTRABUDUA | Hezegunea berreskuratzeko proposamena

Udondo ibaiko arroaren fauna eta flora babesteko hiru pauso

Joan den astean ingurumen-jardunaldia antolatu zuen Astrabuduko PSE-EEK. Aitana López eta Jorge González zinegotziek azaldu zituzten bertako hezegunea lehengoratzeko eman gura dituzten pausoak.

ÍÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Astrabuduko hezegunea Udondo ibaiaren alde bietan dago, Leioako eta Erandioko udalerrietan; 6,5 hektareako superfiziea dauka. Hezegunea zelanbaiteko babesa ematen dion EAEko Hezeguneen Lurralde Plan-gintza Sektorialaren barruan dago. Halere, bere egoera ez da ona aspaldidanik.

Astrabuduko flora eta fauna inbentariatu zuen azken txostena 1997koa da, Lópezek azaldu duenez. Grama SA enpresak egindako azterketan, topatu zituzten 50 landare baino gehiago eta 51 hegazti-, 18 ugaztun-, zortzi narrasti-, sei arrain- eta bost anfibio-espezie. Aipagarria da espezie batzuen presentzia: arrain hiruarantza, espezie kaltebera modura agertzen dena EAEko Espezie Mehatxuen Katalogoan; eta abozeta, zertzeta, errege-kurlinta eta txilinporta arrunta, espezie arrarotzat jota daudenak. Denera, bertako hamahiru espezie daude mehatxumailaren batean.

BERRESKURATZEKO HIRU FASE. «Alderdi sozialistakook urte piloa daroagu proposatzen hezegunea berreskuratzeko», gogorazi du Lópezek, hori berarentzat zer den azaltzeagaz batera: «Hezegunea pertsonen gozamenerako ipintzeko asmoa dugu, fauna eta flora babesten diren bitartean».

Erandioko PSE-EEren ustean hiru pauso eman beharra dago Astrabuduko hezegunea berreskuratzeko: lurraren titulartasuna edo lagapena lortzea; flora eta fauna inbentariatzea eta egoeraren eta babeserako neurrien gaineko txosten berritua egitea; azkenik, txostenak segur aski aginduko duenari kasu eginez, hezegunea garbitu, hezkuntza-panelak ipini eta auzokideentzako pasealekuak egokituko lituzkete. Halere, ohartarazi dute kontua ez dela dirudien bezain erraza, batez ere lurren jabegoari edo lagapenari dagokionez. Hezegunean lursail pri-



Udondo ibaiaren alde bietan dago Astrabuduko hezegunea. OSKAR GUTIERREZ

Astrabudua, Europako animalien babeslekua

Gramak 1997an egindako txostenak ohartarazi zuen baieztatu beharra zegoela desagertzeko zorian dagoen ur-ipurtats edo bisoi europarraren presentzia. Modu berean, txostenak nabarmendu zuen Astrabuduko hezeguneak erakar dezakeela benarriz arrunta; desagertzeko arriskuan den hegazti horrek erreproduzitzeko behar dituen baldintzak bertan ematen dira, hezegune gehienetan ez bezala. Garrantzi handia eman dio horri Lópezek: «Hezegunea fauna berreskuratzeko gune bilaka daiteke, Europar desagertzeko bidean dauden hainbat espezie berreskuratzeko. Niri oso interesgarria iruditzen zait».

batuak eta publikoak daude, eta azken horien zati bat Bilboko Udalarena da, Erandio desanexionatu zenean Bilbo hainbat lursailagaz geratu baitzen. Hala, Bilboko Udalagaz daborduko negoziazioak ireki ditu Erandioko PSE-EEK, Gonzálezek jakinarazi duenez: «Ni neu egon naiz Bilboko arduradunakaz berba egiten. Euren asmoa da hezegune hori lagatzea, eta beste bi lursail, Kukularran eta Sanpablomendin. Negoziazioak geratu ziren, gure alderdiaz aparte EAJ ere inplikatu beharra zegoelako; akordio batera iristeko asmoa egon badago. Badirudi akordio hori erraza dela, gutxienez Bilboren aldetik, baina gaur egun ez dakigu ezer berririk. Zer edo zer egiten dabiltzalakoan gaude».

López ere baikorra da puntu horri dagokionez, «etorkizunean, espero dugu hemendik ez oso luzera, ikusiko dugu zelan besterendu daitezkeen lur horiek; agian, ezin izango da jabetza eskuz aldatu, baina bai lurra laga. Azken finean, babestutako lursailak dira, bertan ez dago eraikitzerik, argi eta garbi. Baina behar dugu lagapen hori, udal-lursailaren gainean jardun ahal izateko eta esku-hartze integralagoa egiteko». ◀



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

BERANGO | Irisgarritasuna

Arrapala batek Sabino Arana eta Intxaurreaga lotuko ditu

Berangoko alde biak lotzeko behin-behineko neurria izango da azpiegitura berria. Izan ere, Sabino Arana kalea eraberritzeko proiektua amaitzen denean behin betiko irtenbidea emango zaio arazo horri.

IKER RINCON MORENO ▶



Metro-geltokiaren ondoko eskaileretan ipiniko dute arrapala. OSKAR GUTIERREZ

Metro Bilbaok Berangon duen geltokiaren ondoko igogailuak hainbat matxura izan ditu azken hilabeteotan. Hori dela eta, mugikortasun urriko pertsonak arazoak izan dituzte Sabino Arana kalearen eta Intxaurreaga auzoaren artean ibiltzeko, horixe baita alde bi horiek lotzen dituen azpiegitura bakarra udalerriaren erdigunean. Egoera horren aurrean, etorkizunean halakorik errepika ez dadin, Irisgarritasunaren Legea beteko duen arrapala bat ipintzea erabaki du Berangoko Udalak, metro-geltokiaren sarreratik hurbil dagoen igogailuaren ondoko eskaileretan.

Anabel Landa alkateak azaldu duenez, behin-behineko irtenbidea izango da hori, Sabino Arana kalea eraberritzeko behin betiko proiektua burutzen duten bitartean. «Azken hilabeteetan igogailuan matxurak egon dira eta mantenuaren ardura duen enpresak bost egun behar izan ditu horiek konpontzeko. Onartezina da hainbeste denboran geldirik egotea azpiegitura hori», adierazi du Landak. Igogailu hori Sabino Arana kalearen beheko partea eta Intxaurreaga auzoko goialdea lotzen dituen azpiegitura bakarra da, metro-geltokiaren ondoan dagoena, udalerriaren erdigunean, alegia.

Igogailuaren matxurek eragindako arazoak berriro errepika ez daitezen irtenbideak bilatzera bultzatu dute Gobernu-taldea (EAJ). «Irisgarria den arrapala bat ahalik eta azkarren ipintze-



«Bost egun behar izan ditu enpresak igogailua konpontzeko. Onartezina da hainbeste denboran geldirik egotea azpiegitura hori»

ANABEL LANDA GAUBEKA
BERANGOKO ALKATEA

ko aukera aztertzea eskatu zitzaizaien teknikariei, inguru horri behin betiko irtenbidea ematen zaion bitartean», alkateak jakinarazi duenez.

Era berean, Landak zehaztu du erabaki horren gaineko informazioa helarazi zitzaizela joan den irailaren 20an Hirigintza eta Ingurugiro Informazio Batzordeko zinegotzi denei. Izan ere, zinegotzietako batek igogailuaren egoeraren nondik norakoak ezagutzeko galdera egin zuen, eta horri erantzunez eman zuten egitasmoaren berri.

BIGARREN FASEAREN LANAK, HASTEAREN. Daborduko arrapala birplanteatuta dago eta «aurrekontua eta ezaugarriak ezagutu ostean berehala ezarriko da», azaldu du Landak. Elementu horren kokapena Sabino Arana kaleko berrikuntzaren bigarren fasearen proiektuan islatuta dago eta lanak laster hasiko dira, orain dela gutxi esleitu baitzaizkie Vusa enpresari, 800.000 euro inguruan. Lanok udalerriko bide nagusi horretan egingo dira, metro-geltokitik Eroskiko merkataritza-gunera arteko zatian. Exekuzio-epea sei hilabetekoa izango dela aurreikusitako dute arduradunek.

Joan den urriaren 2tik arrapala berriaren planoak argitaratuta ageri dira udalaren webgunean, edonork ikusteko moduan, udal-iturriek jakinarazi dutenez. ◀



KULTUR ELKARTE & TXOKO EUSKALTZALEA
BAZKIDE IZAN GURA?
WWW.AZEBARRI.EUS / EUSKAL HERRIA 14, ALGORTA



JUAN MARI

Harategia
Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GETXO | Zainketa aringarria eta dolua

Bizitzan bezala, heriotzaren prozesuan ere lagundu behar da

Inork ez du heriotzaren inguruan berba egin gura; hala ere, hori normalizatu beharra dagoela uste du Naomi Hasson hezitzaileak: «Naturaltasunez hartu beharra dago, azken agurra ondo eman ahal izateko».

IKER RINCON MORENO ▶

Aurreko urteetan bezala, mendekotasun-egoeran dauden zaintzaileentzako tailerrak antolatu ditu Getxoko Udalak ikasturte honetarako. Aurten, gainera, aurreko edizioetan parte hartu duten zaintzaileen eskaerei jarraian eginda, ikastaro berri bi eskainiko dituzte: osatze naturalaren (36 ordukoa) eta zaintza aringarriaren eta doluaren (40 ordukoa) gainekoak, hurrenez hurren. Azken horretaz arduratuko da Naomi Hasson erizaina eta IMQ Igurco taldeko hezitzailea, eta helburua da beharrezkoak dituzten erremintak ematea zaintzaileei gaixoa bere azkeneko egunetan ahalik eta erosoan senti dadin bermatzeko, bai fisikoki, bai psikologikoki, emozionalki, espirituaiki eta sozialki.

Hassonek azaldu duenez, zainketa aringarrien helburua da gaixotasun sendaezinak dituzten edo hiltzorian dauden pertsonak hobeto sentiaraztea. Horretarako, atentzio osoa eman behar zaio pertsona horri, minaren tratamenduari eta beste arazo fisiko, psikosozial eta espiritualari arreta berezia jarrita. «Gaixo kroniko, larri edo sendaezin bat diagnostikatzen dutenean, askotan pentsatzen da daborduko ez dagoela ezer egiteko. Baina hori ez da horrela, oraindino asko dago aurretik, eta horretarako daude zainketa aringarriak», hezitzailearen arabera. «Egun batean hil egingo gara denak, baina, gainontzeko egunetan zer?», galdetu du, *Los demás días* dokumentalari aipamena eginez.

Horixe da mota horretako zainketek aldarrikatzen dutena: heriotzaren zain dauden pertsonak laguntzea bide horretan, bizi-kalitetea ahalik eta hoberena izan dezaten, egiteke dituzten gauzak egiten laguntzea eta etor daitezkeen gauzak aurreikus-tea. «Modu horretan, pertsona bera, familia eta inguruko lagunak prest egongo dira, eta ahal izan duten dena egin dutela sentituko dute», azpimarratu du adituak; «zainketa aringarria ez da azken hiru egunetako kontu bat, agoniakoak. Zerbait gehiago



CELIA HERNÁNDEZ / SALVADOR FENOLL

Mendekotasun-egoeran dauden zaintzaileentzako zainketa aringarrien ikastaroa antolatu dute Getxon.

Zaintza aringarria
«Gaixoaren minaren tratamendua egiteaz gainera, horren arazo fisiko, psikosozial eta espiritualak ere landu behar dira»

Dolua
«Dolua normalizatu behar da. Jendea lagundu eta heriotzaz berba egiteko beharra dago, bakarrik senti ez daitezen»

da», gaineratu du. Horretarako, mediku eta sanitarioen laguntza izateaz gainera, gaixoaren familiagaz batera zaintzaile bat egon behar da, heriotzaren bide horretan lagunduko duena.

Hassonek nabarmendu duenez, bizitzari amaiera emateko prozesu horretan laguntza dagoenean, doluaren prozesua osasungarriagoa izaten da, eramangarriagoa, sendiek zuzeneko informazioa dutelako. Hala, ez dira uste okerrakaz nahasten, eta denbora benetan beharrezkoak diren gauzetan inbertitzen dute. Berbarako, «askotan uste da eriek jaten ez dutelako hiltzen direla, eta gertatzen dena da ez dutela jaten hiltzen ari direlako, gorpuek ezin dutelako gehiago. Horretan tematu beharrean, egin behar dena da eurakaz egon, berba egin, musuak eman...», azpimarratu du Hassonek. Era berean, aldarrikatu du doluaren eta heriotzaren gaia normalizatu beharra dagoela, horretaz berba egin ahal izateko eta jendea bakarrik senti ez dadin.

Zainketa aringarriak gaixoaren etxean bertan edo ospitale batean eman daitezke, hala nola Gorlizkoan, Bilboko Santa Marinaran eta Santurtziko San Juan de Dios ospitaleetan. ◀

Loraketa
LORE-ARTEA

Domu Santu Eguna
Día de Todos los Santos

Lore-sortak eta zentroak, naturalak eta artifizialak
Ramos y centros florales, naturales y artificiales



25 €tik
aurrera!
Desde 25 €!



685 730 495 | nekaneloraketa@gmail.com | Eleizalde 15 · Urduliz



SUPERCOR

expres

Eduardo Coste, 1
GETXO

Zer behar duzu?

*Ogia, esnea, egunkaria... Gaurko edo aste osorako behar duzuna
topatuko duzu Getxoko Supercor Exprés berrian.*

Elikagaiak, produktu freskoak, drogeria, lurrinak, aisia, prentsa, aldizkariak...

Modurik eroso eta arinenean hautatzeko aukera-sorta handiarekin.

Beti bezala, Supercor Exprésen.



Gainera

10%
*opari**

25 eurotik gorako erosketetan

*Getxoko Supercor Exprésen egiten duzun beste erosketaldi batean trukatu ahal izango duzun hobaria, 2018ko azaroaren 15etik 28ra, salbu eta berriz kargatzeko txartelak, telefono-txartelak eta internet bidez erosketak egitekoak, tabakoa eta eratorriak, liburuak, fidelizatze-kanpainak eta ONCEren produktuak erosiz gero. Sustapen honek 2018ko urriaren 25etik azaroaren 14ra izango du balioa.

ASTELEHENETIK DOMEKARA, 07:00ETATIK 01:00ETARA ZABALIK

Baietz harrapatu!

Karramarro bihurriak kosk egingo dio emakumeari, ipurmasailetan. Zein bide hartuko du horretarako?



Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak FUTBOL berba osatzen duten sei hizkien bidez (F, U, T, B, O eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	O	F			B
U	L		O		T
B		L	F		
O			B	U	
	T	O		B	
	B		T		F


Zabor-biltzaileen greba

Hau da kiratsa! Ez dira nazkagarriak irudiok? Ba, nazkagarriak izateaz gainera, ezberdinak ere badira. 12 alde daude bien artean. Ikusten dituzu?



Itzala

Badakizu zer izen duen kirol honek? Ea, berbak hamabi letra ditu, h-z hasten da, eta a-z amaitzen.... Hal... Halt... Bai! Hain zuzen! Halterofilia. Maripurtzil horretan dabil oraintxe, baina ez da batere trebea. Ahalegintzen den aldiko, diskoren bat jausten zaio hagatik. Aurki ezazu irudiaren itzal zuzena.



Lehiaketa Non dago?

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarritz gero, beheko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria

Antzerkirako sarrerak

Kultur Leioari esker, azaroaren 11n (domekan) eskainiko den 4 urtetik gorakoentzako *Inondik inora* antzezlanaz gozatzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu. Saria irabazi gura baduzu, azaroaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

KEPA ALTONAGA SUSTATXA | Saiakerako Euskadi Saria

«Idazkera kilikorra erabiltzen dut nire lanetan»

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Kepa Altonaga Sustatxa (Loiu, 1958) algortartutako biologo eta idazleak irabazi du saiakerako Euskadi saria, *Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* (2017, Pamiela) izenburuko lanagatik. Garaikurra azaroaren 27an emango diote, Gasteizko Artium Museoa egingo den ekitaldi batean.

Espero zenuen Euskadi Saria irabaztea? Egia esateko dagoe-neko ez nuen espero. Uda aurretik aipatu zidaten finalisten artean nengoela; baina iraila partean *Berria* egunkarian sariei buruzko ohar txo bat agertu zen eta ordurako aparteko deirik ez nuen jaso, ez nuen uste emango zidatenik. Gero, egunak aurrera egin ahala, lehen labekadako sariak agertu zirenean, askoz ere gutxiago espero nuen; ordurako zer edo zer jakin beharko nukeen. Handik gutxira eduki nuen dei pozgarri hori, esanez: «Zu zeu zara».

Horrela izanda, pozgarriagoa suertatu zitzaizun? Errekonozimenduak beti dira pozgarriak; horrelako sari batek sinesgarritasuna eta ikusgarritasun handiagoa ematen ditu.

Irabazitako lanak idazketa samurra zein arina eta estilo freskoa eta dinamikoa duela dio epaimahaiak. Zer diozu? Nik, jakina, laudorio horiek goragotu egingo nituzke, kar, kar. Kontua da saiakera-lanekin aurreiritzi bat izaten dugula: beti pentsatu egiten dugu idazlan astunak eta irakurtezinak direla, eta gai ilunak jorratzen dituztela. Hau da, gai horiek lantzen dutenentzat bakarrik direla interesgarriak. Hala ere, izatez, zientzia-dibulgaziotik abiatzen naiz ni, eta lana zientziari buruzkoa izan arren, nire ardura da gauzak modu atsegin, ulergarri eta irakurgarrian idaztea. Niri gustatzen zait esatea estilo kilikorra erabiltzen dudala, kili-kiliak egiten dizkiola irakurle-



Duvoisin kapitainaren malura (2018, Pamiela) liburu berria plazaratu du Altonagak. HODEI TORRES



Patagoniara Hazparnen barrena Pamiela, 2017

Florentzio Basaldua (1853-1932) bilbotarrak du protagonismo nagusia *Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* honetan: Ameriketara doa oso gazterik, eta bertan eraiki nahi du Euskal Herri berri bat. Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) garaztarra da kontrapuntua: «Hori ez da amets bat beizik», idatzi zuen.

ri. Dena dela, idazketa samurra eta arina erabili arren, aipatu beharra dago liburu honetan gertatutako guztia ondo dokumentatuta dagoela.

Epaimahaiak argudiatutakoak euskara erraza erabiltzen duzula esan gura du? Ulegarria bai, baina aldi berean jasoa da erabiltzen dudana euskara. Gauza batzuk ezin ditugu nahastu. Ni ez nago euskara errazaren kontra, baina euskara ikasten ari den jendearentzat da hori. Unibertsitateko kontuak unibertsitate-mailako euskararekin azaldu behar dira, eta bestela jai dugu. Liburu honen aurretik *Back to Leizarraga* (2015, Pamiela) lana atera nuen; hor bazegoen euskaraz idazteko beharrezkoa dugun prosari buruzko gogoeta bat. Prosa praktikagarri bat egiteko gaur egungo gauza asko aztertu beharrean aurkitzen gara; bestela, plisti-plasta ibiliko gara, euskara errazaren potxingo horretan.

Plazaratu duzun azken liburuak ere hori dena dauka atzean? Orain dela egun gutxi aurkeztu nuen *Duvoisin kapitainaren malura* (2018, Pamiela), nire liburu berria. Bertan gogoeta bat egiten dut euskararen inguruan. Azken batean, proiektzio kulturalik nahi badugu euskararentzat, dialektoa laburregia da. Hori ere azpiko tesia da. Hori janzteko istorio zoragarri batzuk kontatzen ditut: literatura euskaraz egin nahi zuen Duvoisin kapitainarena, Intxauspe apaizarena... Baina hori beste elkarriketa baterako gaia izango litzateke. ◀

Ostegun, bariku eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Urte Kostako gazteria saltsan!!

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elikagai ekologikoak

Ekotzeak eta banatzaileak

Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

HIRUKAren berbaldi irekiak



Antzerkia

Urriak 25, eguna
Zoaz pake santuan
20:00 | Altzagako azoka zaharra | Erandio
Txalo Produzioak taldeagaz. Euskaraz. Doan.

Urriak 26, barikua
Anton Garai kortsarioaren historia
20:30 | Elizako plaza | Gortiz
Herri-antzezlan. Euskaraz. Sarrera, doan.

Urriak 28, domeka
Lau
18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Salto Sorkuntzak taldeagaz. 3 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 3-5 euro.
Ulises
18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Gorakada taldeagaz. 6 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 3-5 euro.

Berbaldiak

Urriak 25, eguna
Literatura-solasaldia
19:30 | Aldai patronatua (Algorta) | Getxo
Iparra Galdu Gabe jardunaldiak.
Biribilgune liburuaz berba egingo du Katixa Dolharé-Çaldumbide idazle ezpeletarrak. Euskaraz. Doan.

BARRIKA | Jendaurreko elkarrizketa
Eskualdean berbaldiak eta topaketak antolatuko ditu HIRUKA udagoieneko eguenetan, herriz herri hainbat gairen gaineko eztabaidak piztu eta ekimen parte-hartzaileak sustatzeko. Modu berean, gure komunikazio-proiektuaren egoeraren berri emango dugu. Hirugarren hitzordua El Rincón de Barrika tabernan (Udaletxeko bidea, 4) izango da, urriaren 25ean, arrastiko 19:00etan. Joseba Rios arkeologoari zuzeneko elkarrizketa egingo dio Iker Rincon HIRUKAko kazetariak. Abenduaren 13ra arte iraungo du ekimenak.

Urriak 31, eguaztana
Literohitura
19:30 | Gaztelekua | Plentzia
Aitziber Etxebarriaren *Nomada* liburuari buruzko solasaldia. Euskaraz. Sarrera, doan.

Bertsolaritza

Urriak 28, domeka
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: laugarren kanporaketa
17:00 | Jai Alai frontoia | Plentzia
Peru Vidal bertsolari leioaztarrak kantatuko du. Euskaraz. Sarrerak: bertsosarrerak.eus


Kirolak

Urriak 28, domeka
Sei Herriren ibilaldi neurtua
08:15 | Sei Herri taberna | Berango
Horrez gainera, bertoko elikagaien azoka, txalaparta-tailerra, animaziozko filma, poteo girotua eta bazkaria egongo dira. Informazio gehiago: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com

Musika

Urriak 26, barikua
Pauline eta Juliette
19:00 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo
Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. Kantari gazte biakaz David Faury (kontrabaxua) eta Nicolas Lassabe (pianoa) egongo dira. Sarrera, doan.

Gau Beltza
Urriak 31, eguaztana
Ibarreta plaza (Gortiz)



Jarduerak
17:30 Euskal Arimen Gauean erabiltzen diren arropez janzteko tailerra, Astondo kuadrillagaz. Maindire zaharrak eta lastozko txanoak eroateko eskatu dute.
17:30 Euskal Arimen Gauaren makillaje-tailerra.
18:00 Gaztaina erreak.
18:30-20:00 Gura duenak argazkia egiteko aukera izango du.
18:30 Ginkana. Ordu laurden lehenago, plazan bertan izena eman ahalko da.
19:30 Edabeak egiteko tailerra, Sorginen Alabak talde feministagaz.
21:00 Sorgiña Txirulina ipuin-kontalaria: *Euskal mitologia, jira eta bira*.
22:00 Perretxiko-pintxoeh lehiaketaren sari-banaketa, saskiaren zozketa eta laguntzaileek emandako produktuen zozketa solidarioa (txartelak bi euroan salduko dituzte).

Txosna solidarioa
18:30-23:00 Etekinak Gortizko Harrera Etxearentzat izango dira.

Antolatzaileak
Astondo Kuadrilla.

Urriak 27, zapatua
Kantu-jira kalez kale
19:30 | Azebarri kultur elkarte (Algorta) | Getxo
Ipar Euskal Herriko kantak. Ibilbidea: Azebarri, Kasino, San Nikolas, eta Katea (Bodegilla). Antolatzaileak: Itxarkantu, Itxas Argia, Kantari Kanta eta Azebarri. Parte-hartzea libre.

Josu eta Unai
21:00 | Etxebarri taberna | Sopela
Euskarazko abesti zaharrak eta berriak kantatuko dituzte. Sarrera, doan.

Kantu-afaria Anje Duhaldegaz
21:30 | Azebarri kultur elkarte (Algorta) | Getxo
Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. Aldez aurretik izena eman beharko dute afarira joan gura dutenek, telefono bidez (688 652 917) edo helbide elektronikoz (azebarri@gmail.com). Txartelak 22 euroan egongo dira.

«Yo, Tonia» Zineko Tonia

Jatorrizko Izenburua: *I, Tonia*
Zuzendaria: Craig Gillespie
Antzezleak: Margot Robbie, Sebastian Stan, Allison Janney, Paul Walter Hauser

Urriak 27- 20:00
Josu Murueta Kultur Etxea (Astrabudua)




PATINAJE artistikoaren mundua hankaz gora ipini zuen 1994ko istilu batean oinarritzen da *I, Tonia*, Craig Gillespiaren lan onena. Steven Rogers gidoilariagaz batera, Gillespiek zuku guztia atera dio Tonia Harding patinatzaileak aurre egin behar izan zion egoerari, bere lehiakide Nancy Kerrigani eraso egin ziotenean. Hardinge eta amak osatzen duten Ameriketako familia ez idealaren harreman bortitzak, hizkuntza baldarrak, ezjakintasunak... filmaren lehen minututik kolpatzen dute ikuslea. Umore-ukituek arintzen dute sakoneko drama pertsonala, protagonistari zoriontasunerako tarterik ia uzten ez diona. Ezinean dabil Harding, «zabor zuria», inoiz onartuko ez duen patinajearen mundu elitistan sartu guran. Aipagarria da kameraren erabilerak hain kirol artistikoaz gozatzen laguntzen duen modua. Eta ahaztezina Margot Robie-k eta Allison Janney-k alabaren eta amaren paperetan egindako lan bikaina, sariek islatu duten bezala. Gomendio bat: ez jo Google-era filma ikusi aurretik, eta fikzioaren bidez ezagutu pertsona erreala.

hiruka app berria

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Argazkiak eta bideo albumak
- Albisteak
- Geolokalizazioa
- HIRUKA astekaria
- SOS botoia

Hiruka app agendan ekitaldi baten berri eman nahi badiguzu, jarri gurekin harremanetan: agenda@hiruka.eus



Deskargatu!



«Surflarion ideia izan zen Galeako

Galeako Olatu Handiko Txapelketa itxarote-aldian sartu zen joan den urriaren 15ean. Martxoaren 31 bitartean, antolatzaileek alerta isiotuko dute baldintza egokiak aurreikusten dituztenean, munduko surflaririk onenak Uribe Kostara etorri eta bertokoakaz lehiatzeko.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Galeako Olatu Handia eta bertoko txapelketa ondo baino hobeto ezagutzen dute Eneko Acero, David Bustamante eta Aritza Saratxaga eskualdeko surflariek. Orain dabilen Punta Galea Challenge defendatzen dute, baina bestelako txapelketa ere badute buruan.

Zergatik duzue gustukoa Galeako olatu handia? ENEKO ACERO: Hemen, Euskal Herrian, ez dago hainbeste olatu handi eta kalitadedun; Galea eskumako olatu luzea da, eta kalitadeduna, oso ondo dago.

ARITZA SARATXAGA: 15 edo 16 urtegar Pello Etxebarría algotarra ezagutzen nuen; bera olatu handietan ibiltzen zen, ni hasi berria nintzen eta hara eroan ninduen. Ikusi nuenean ikaragarriko olatua geneukala etxe alboan, *flipatu* egin nuen. Kristoren amildegi polita dago hor alboan, olatuak ikusgarriak dira, oso-oso luzeak, jarraituak, hemen oso zaila da hori lortzea, horrelako olatu handietan. Berbarako, beste leku batzuetan, kristoren jaitziera egin eta gero olatu asko geratzen dira pareta barik; Galeako olatuak ematen diguna da izugarriko pareta, nahiko olatu handiagaz: oso leku berezia da guretzat.

DAVID BUSTAMANTE: Oso handi dagoenean, olatua bertan garbitzen da eta eki-iparreko haizeagaz, guk *gabatxo-haizea* deitzen dugunagaz, olatua haize barik geratzen da; horri *glassy* esaten diote ingelesez. Horrelakoetan, oso leuna da, zimur bakoa, surf egiteko oso gustagarria. Agian Meñakozen egon daiteke kristoren haizea, aire-hutsuneak eta olatua nahiko mugituta eta han, ostera, babestuago dago, oso polit dator, haize barik eta surfean ibiltzeko mila aldiz hobeto.

Zelan hasi zineten bertan surf egiten? E.A.: Apurka-apurka. Galeak soilik apurtzen du handi dagoenean, hortaz itsasaldiari itxaron beharra dago. Orain dela hogeitau urte hasi nintzen, hogeitau urte nituela, egun batzuetan apurka-apurka sartzen. Olatu handietan esperientzia hartu beharra dago. D.B.: Aspaldiko partez Pello Marigaz. Pello Etxebarría joaten

Eneko Acero
Getxoko surflaria



© WSL

«Txapelketa gehiago gustatzen zitzaidan aurreko formatuan, kalitate ona hobesten zelako, eta orain, ostera, neurria»



zen asko, *Borratxin*, *Osito* eta jende horregaz. Joaten hasi ginen ez zegoelako inor inoiz, baina inoiz ere ez. Hor ibili gara urte asko hiruzpalau surflari bakarrik, kristoren olatuak hartzen.

Zelan duzue akorduan Galeako surf-txapelketaren hasiera?

D.B.: Berez, gure ideia izan zen, surflarion ideia. Batez ere Euskal Herrian olatu handien surflariak ibiltzeko asmo bat zen, gero afari bat egiteko eta, olatuak ikusita, agian baten bati taularen bat eman edo halako zer edo zer, etxeko kontu bat. Sartu ziren markak, sartu ziren aldizkariak, lausengatu zuten eta hasi zen arrakasta hartzen, gero eta handiagoa.

A.S.: Txapelketa egiten hasi ginenean ideia bat geneukan, federazioagaz egindako ideia bat, federazioa lortzeko horrelako izen berri bat olatu handien alorrean, laguntzeko eta jendeak ezagut zezan federazioak zer egiten zuen. Azkenean, ideia apur bat galdu zen eta apurka-apurka berriro dabil bueltan ideia hori. Hor gabilta, borrokan.

E.A.: Nik parte hartu nuen txapelketa bitan, uste dut. Ondo egon ziren. Ez zen hainbeste tamaina bilatzen, kalitatea baino. Azken batean, oso tamaina handia izatea eta kalitatea edukitzea oso zaila da. Urte osoan egun bitan edo hirutan baino ez da gertatzen hori. Horrenbestez, itxaroten genuen itsaso nahiko handi egon arte, baina, batez ere, kalitate ona izan arte, haize gutxi eta baldintza garbiak egon arte. Orain formatua apur bat aldatu da eta olatuen neurria handiagoa izatea gura izaten da. Formatu biak ondo daude. Edozein kasutan gogorapen oso onak dauzkatzat, batez ere bigarren urtearen gainekoak. 2008an eman zidaten surflaririk onenaren saria. Horrelako egunetan oso ondo pasatzen genuen; talde txikia sartzen zen txapelketara eta oso giro ona geneukan uretan, bata besteari animoak ematen. Suposatzen dut orain ere giroa oso ona izango dela Punta Galea Challenge horretan.

Zein da zuen esperientziarik onena bertako olatuan?

E.A.: Urtero bizpahiru olatu handi eta garbiak hartu izan ditugu. Oso zaila da egun batean oso baldintza onak izatea. Gogoan daukat orain dela bost urte hartu genituela hiru edo lau metroko olatuak, oso garbiak eta oso onak, uste dut Gabonen ostean izan zela, esperientzia ederra izan genuen. Bestela, bizpahiru bainu izan ditut olatu handiakaz eta sentsazio onenakaz. Handi dagoenean oso olatu ona da Galeakoa.

D.B.: Bainu bat, Pello Etxebarría eta Aritza Saratxagagaz; hiruzpalau metroko olatuak, olatuak segidan, inor ez eta oso gustura eurakaz. Gainera, garbi datorrenean uretan oso lasai egon zaitezke. Meñakozen beti dator beste serie bat, handiagoa, kan-

Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Ezagutu gaitzazu!!!



www.sanikolas.eus

San Nikolas
IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

txapelketa: etxeko kontu bat»

porantzago, eta harrapatzen zaitu. Hemen, Galean, garbi dagoenean oso trankil eta lasai egon zaitezke uretan. Eta egun horretan izan ziren olatu handiak, garbiak eta oso onak.

A.S.: Badauzkat oroitzapen oso-oso onak olatu horretan. Hasiera batean Pello Etxebarriak eroan ninduen olatu horretara, David Bustamante lagun minagaz batera. Urte askoan ibili gara hor, bakarkako bainuak hartzen elkarregaz, olatu oso onakaz. Esperientzia oso onak bizi izan ditugu hor: kontu onak, kontu txarrak, susto handiak... Baina azkenean momentu zoragarriak bizi izan ditugu bertan.

Noizbait beldurra sentitu duzue bertan? E.A.: Bai, noski. Azken batean, Galeak oso sarbide txarra dauka, olatu-serie batean jaustekotan hor gainean amildegia dago eta olatuek amildegia kontra botatzen zaituzte. Nahiko argi ibili beharra dago, eta ondo pentsatu zein olatu hartu eta zein ez. Agian serie baten lehenengoa hartu eta jaustekotan hurrengo hiruzpalau olatuak direla eta haitzetatik oso paraje gera zaitezke. Punta Galea Challenge segurtasunerako motorrak dauzkate, horiek zerbitzu oso azkarra egiten dute eta minutu bitan atera dezakete norbait haitzetatik. Oso ondo dago, beharrezkoa da bi edo hiru pertsona zerbitzu hori ematen egotea, oso garrantzitsua da, amildegia eta haitzak oso hur daudelako.

A.S.: Guk beti pentsatzen dugu kontu asko sartu baino lehena: aztertzen dugu korranteak eta arroak nola dauden, taula galduz gero nondik atera daitekeen... Arriskuak beti aurreikusten ditugu, baina suerta daitezke. Arriskua beti dago, beldurra izaten dugu horrelako olatuetan ibiltzen garenean baina hor dago gure borroka. Hori ere gustukoa dugu: momentu erdi txar horiek pasatzea, eta zelan murgiltzen garen ikustea.

D.B.: Bai, batzuetan harrietatik paraje egon naizenean, olatuak indar handia hartu du eta nigana etorri da. Erdian egon izan naiz, olatu eta arroken artean... Eta bai, beldurra sentitu izan dut. Beldurra ondo eroan beharra dago, baina esana daukat: «Ostia! Zer edo zer jauziko da hemen; ez dago urik, dena arro-kaz beteta eta gu...», baina hori kenduta, ondo.

Zer iruditu zitzaizuen Galeako Olatu Handiko Txapelketa Munduko Surf Ligako probetatik ateratzea? E.A.: Munduan kalitate bikaineko hiru olatu daude eta horietan egiten da txapelketa: Nazaré (Portugal), Pe'ahi (Hawaii) eta Mavericks (Kalifornia). Olatu horiek paregabeak dira, Galeako olatuagaz alderatuz gero bestelako maila daukate. Uste dut munduko olatu handienetan eta kalitate onenekoetan zentratu direla, eta horiek dira. Hortik begiratuta, ondo deritzot Galeakoa kontuan

Aritza Saratxaga
Sopelako surflaria



© PEÑA TXURI SURF ESKOLA

«Pello Etxebarriak eroan ninduen Galeara. Ikusi nuenean ikaragarritzko olatua geneukala etxe alboan, *flipatu* egin nuen»

David Bustamante
Barrikako surflaria



© STYLING

«Aurten ere lehiatuko naiz. Egina dugu gure arteko botazioa, lau surflari onenak hautatzeko; aukeratu naute eta joango naiz»

ez hartzeari. Galea oso olatu ona da, baina apur bat mugatuta dago. Ondo jokatu dute.

A.S.: Pena izan zen. Natxo González, berbarako, mundu-mailan sailkatu zen proba horregatik. Guretzat, Euskal Herriko surflariontzat, horrelako txapelketa bat galtzea pena handia izan da, geure burua munduari ezagutarazten geniolako bertan. Baina txapelketa hauek eta Munduko Surf Liga enpresa pribatuak badiutuzte euren gastuak, euren kontuak eta horiei begiratzen diete. Kanpoan utzi zuten Galeako txapelketa, baina ez da ezer gertatzen. Bizpahiru txapelketa egon ziren, munduko surflari onenak etorri ziren Galeara surfean jardutera, ezagutu egin zuten. Txapelketa egin zen egun horietan olatuak ez ziren izan oso-oso onak, baina hori betiko kontua da.

Aurten lehiatuko zarete? E.A.: Ez, ez dut gonbidapenik hartu, baina lehen esan dudanez, txapelketa gehiago gustatzen zitzaidan aurreko formatuan, kalitate ona hobesten zelako, eta orain, oster, neurria. Niri gustatzen zait olatuetan disfrutatzea, gero eta gehiago baloratzen dut hori, eta baldintzak ez badira hain onak, handia izanda eta bihurri izanda, ez da hainbeste disfrutatzen. Formatu horretatik apur bat kanpo geratu naiz. Ondo deritzot, beste ikuspuntu bat da eta errespetatzen dut. Formatu horretan ere ondo aterako da txapelketa, baina nik daborduko beste modu batean hartzen ditut kontuak.

A.S.: Uste dut baietz. Oraindino antolatzen gabea txapelketa dena eta *wildcard* delakoak. Gustatuko litzaidake, gutxienez. Baina ulertzen dut guk daborduko urte nahikotxo dugula eta gazteei ere aukera eman beharra dagoela.

D.B.: Bai, aurten ere bai. Egina dugu gure arteko botazioa, lau surflaririk onenak hautatzeko; aukeratu naute eta joango naiz.

Besterik esateko? A.S.: Txapelketa honegaz gura duguna da jendeak Galeako olatua ezagutzea, eta federazioak eta antolakuntzan parte hartzen duten denek bertakoei errespetua izatea. Lortu dugu azken urte hauetan, eta horregaz, perfektu.

D.B.: Hara joango den jendea, zaborrontziak erabil ditzala. Normalean eguna haizetsu dabil, jendeak zaborra edonon uzten du, haizeak jotzen du eta berehala plastiko dena uretara doa. Natura dela eta, mesedez, plastikoak etxera eroan edo zaborrontzietara bota. Iaz ezin zen zaborrontzietara bota, bete egin zirelako. Horretaz, besterik ez dut esango. Bestalde, kontuz ibiltzeko gomendatzen dut, inguruan lur-jauzi asko egoten delako eta ezin delako ertzera asko hurreratu: leku arriskutsua da berez. Bizirik dago, aldatu egiten da. Guk egunero ikusten dugu jaitsiera zelan aldatzen den: aldiro-aldiro lur-jauziak daude. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

OSABIDE
Hartz-Klinika

Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696



PLENTZIA | Liskarrak Udalean

Alkatearen kontrako salaketa ipini dute Independenteeak

Plentziako Independenteeak David Crestelo alkatea salatu dutela jakinarazi du EH Bilduren bertoko taldeak. Gaineratu dutenez, momentuz, Bizkaiko Lurralde Fiskaltzak ikerketa-eginbideak zabaldu ditu ustezko delitu ekonomiko batengatik; «hain zuzen, aspaldi alderdi honek ostalarien terrazak eta jabari publikoa okupatzeagatik duen gatazkaren ondorioz». Plentziako EH Bilduk babes osoa adierazi dio David Crestelo alkateari eta Udal Gobernu herrian egiten dabilen «ereduzko kudeaketa» txalotu du.

URIBE KOSTA | Udal-hauteskundeak

EH Bilduk alkategaiak aukeratzeko prozesua martxan ipini du Leioan, Getxon, Sopelan eta Erandion. Hautagaitzak aurkez daitezke hilaren 28ra arte.

GETXO | MTVren kontzertua dela eta

Aldaketak egongo dira trafikoan eta aparkalekuetan Portu Zaharrean, urriaren 25etik aurrera. Kontzertua, aldiz, hilaren 31n izango da, doan.

LEIOA | Ideia-lehiaketa

Pinueta auzoa birgaitzeko ideien bila dabil Leioako Udala. Hiru irabazleen artean 12.000 euro banatzea aurreikusita dago.

GETXO | Euskaraldia

Irribiziei eskerrak emateko ekitaldia egingo dute azaroaren 16an. Euskararen aldeko omenaldia Romo Kultur Etxean izango da.



HIRUKA | Umeterapia bideoa, sarituta

Ikus-entzunezkorik onenaren saria jaso du HIRUKAk Tokikom Sarietan

HIRUKAk Tokikom 2018 Sarietako Ikus-entzunezkorik onenaren saria jaso du, *Umeterapia* lanari esker. Gainera, azal onenaren sarirako HIRUKA izendatu zuen epaimahaiak.



URIBE KOSTA | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Txaber Altubek irabazi du Zornotzako kanporaketa

Abadiñarrak lortu zituen puntu gehien, 478 hain zuzen. Honenbestez, Lekeitioko finalurrekoan kantatuko du, abenduaren 1ean. Unai Mendiburu, Inazio Vidal eta Aitor Esteban uribekostarrak hirugarren, bosgarren eta seigarren geratu ziren.



URIBE KOSTAKO NESKA* FEMINISTAK | Autodefentsa

«Antolatuta eta eraso matxistei aurre egiteko prest gaude. Ez gara zuen beldur»



ROMO PLATAFORMA | Nagusien Etxeari erabilera ematea aldarrikatuz

«Eskandalua da gai sozialen inguruan bere ezinegona aurkezten duen Udalak eraikina bota nahi izatea»

16

langabe kontratatuko ditu zuzenean Getxoko Udalak hamar udal-proiektu garatzeko. Bestetik, Getxoko enpresentzako kontratazio-laguntzak emango dituzte.

Non eta nori erosi jatekoa?



Elikagaien salmenta zuzenaz jardun genuen HIRUKA jardunaldietan.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Idoia Lorente

Erredakzio-burua: Unai Brea

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Oskar Gutierrez

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa: Ziortza Merino

Kolaboratzaileak: Asier Barruetañena, Alazne Palacios, Izaskun Rodriguez, Kerman Santiago

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 8.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Stock Euskadiren azokara hurreratzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu

Barakaldoko BEC erakustazokan azaroaren 9, 10 eta 11n egingo den azokaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, azaroaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Urriko saria

Masaje lasaigarria, Erandioko Bare Zentroaren ekimenez

Bare Zentroaren ekimenez, sari hori zozkatuko dugu HIRUKA lagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali otsailaren 28a (eguzatena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		2					5
	9					6	4
			3	9			
9			6	1			
					5	7	
7						3	6
1			5		8		
3					1	7	2
			4				

			3				1
			5			7	
		8					
9							2
	8		6	1	3		
		7	4				
			1			3	
6	7	4					9
		5			9	6	7

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

7	8	9	6	4	2	5	1	3
6	1	2	5	8	3	4	7	9
5	4	3	8	7	9	1	6	2
8	3	5	2	6	4	7	9	1
4	6	7	3	1	9	2	8	5
9	2	1	8	7	5	3	4	6
3	9	1	4	6	2	7	5	8
2	7	9	6	5	8	1	3	4
1	5	4	8	3	7	9	6	2

1	5	9	3	4	7	6	8	2
8	2	7	1	9	6	5	4	3
3	6	4	8	5	2	7	9	1
9	3	1	5	6	8	7	4	2
6	7	5	4	3	2	8	1	9
2	8	4	7	1	9	5	3	6
7	8	2	6	1	3	5	9	4
4	9	3	2	8	1	7	6	5
5	1	6	9	7	4	2	3	8

Hitza emanda

Heriotza

Bizitza hau balego
plazerez beteta
eta infinitua
balu honek meta,
bukatuko genuke
tristerik, erreta...
Heriotzak jartzen du
bizitzan oreka!



ARITZ
LANDETA
TERCEÑO
Getxo



Flashback **Ander Deuna ikastola** 1983-84 ikasturtea

UNAI BREA ►

Hasiberri den ikasturte honetan 50. urteurrena ospatuko du Sopelako Ander Deuna ikastolak. 1968ko irailean egin zituen ikastolak lehenengo pausoak; hasiera batean zazpi ume baino ez zeukan, baina lehenengo ikasturtea amaitu orduko hogeiziren. Artean ikastetxea ez zegoen, noski, gaur egungo kokapenean; izan ere, hasierako urteetan Sopelako hainbat egoitza txikitan egon zen, 70eko hamarkadaren erdian Gatzarriñe errepide alboko etxalde bat erosi eta gurasoen lanari esker moldatu arte. Gurasoek altxatu zituzten, era berean, ikastola hazi ahala behar izan ziren eraikin berriak. Argazkian 80ko hamarkada hasierako bost irakasle ageri dira, eurretako batzuk daborduko erretiroa hartutakoak. ◀

ARGAZKIAN:

Ezkerretik eskumara: Idoia Mentxaka Saitua, Marije Olamendi Ibarra, Miren Bilbao Landabaso, Izaskun Uriarte Batiz (makurtuta), Marisa Díaz Balerdi.



ANDER DEUNAK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



TESTUA
Beñat Vidal
Gurrutxaga

DOINUA
*Atso gezurti bat /
Ni hil naizela esan
omen du*

ARGAZKIA
Hodei Torres

Hiru leiho, begi bi

*Banku honetan eseri eta
bista derrigor aurrera;
etxe berritan kolore hori
hori, gris beltzen artera.
Barruan ere iluna gura
eta pertsiana behera;
kanpokoari begiratzeko
bigilantzia kamera.*

*Pertsiana bi, eta bestea
erdi mailaraino bildu.
Bertan da, ziur, kalean pasa
behar denaren testigu.
Leiho laurdenak isladatuak
zinez argi ageri du:
aurrean duen antenarekin
guztia entzuten digu.*

*Bankutik hari begira ni ta
bera niri, ze pare...
Bada, balkoia ikusiz ez du
ematen ba herabea!
Gainontzekoen bizitzetara adi,
ahaztu bere ondarea:
inuzentea, lehortu zaio
marihuana landarea!*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**